


EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA
LANDA-GARAPENA
ETA NEKAZARITZA



2021

Izenburua: "Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa landa-garapenean eta nekazaritzan"

Editorea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

Egilea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea

Data: 2021eko ekainean eguneratua

AURKIBIDEA

1.	TESTUINGURUA	4
2.	GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK	6
	2.1 EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN	6
	2.2 BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK	10
	2.3 EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA.....	20
	2.4 GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA	24
	2.5 BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK	27
3.	LEGEDIA	29
4.	DATU-ITURRIAK.....	31
5.	ERREFERENTZI-AGIRIAK.....	35

1. TESTUINGURUA

Landa-ingurunearen definizioak eztabaida ekarri du beti, eta estatuan muga komunik ez dagoenez, autonomia-erkidegoen artean aldeak daude «landa»tzat zer hartzen den zehazteko orduan.

Landa-garapeneko politikak aplikatzeko eremua mugatzeko, honako lan hau egin du: Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE): *EAEko landa-eremuak zehaztea 2015-2020* (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila – EGJIS, 2018). EAEko landa-ingurunearen berezitasuna dela-eta (hiri-eremuekin nahasita ageri baita) alde handiak daude iparraldean, isurialde kantauriarrean, eta hegoaldean, Araban, dauden udalerrien artean.

Euskal Estatistika Institutuak (Eustat) erabilitako definizioaren arabera, hauxe hartzen da landa-udalerritzat: «hiru hauetako bi baldintza betetzen dituen, betiere lehen sektorearen garrantzia Euskal AEko batzbesteko baino txikiagoa ez bada (0,8%), baita batzuk sartu dira nahiz eta bakarrik baldintzetako bat betetzen dutelarik, lehen sektorean daukaten garrantziagatik eta mugetatik oso urrun ez egoteagatik: 1) Populazioa <2.500 biztanle; 2) Populazioaren dentsitatea <85 biztanle/km²; eta 3) Lehen sektorearen garrantzia \geq udal BPGaren % 10».

Emakumeak euskal landa ingurunean azterketaren arabera (Landa Emakumeen Batzordea, 2016) EAEko udalerrien % 49 landakoak dira eta erkidegoko azaleraren % 59 inguru hartzen dute. Udalerri horietan EAEko biztanle guztien % 4,7 bizi dira, eta emakumeak bakarrik aintzat hartuta, EAEko emakume guztien % 4,4 baino ez dira bizi landa-ingurunean.

Lehen mailako sektoreak, landa-eremuaren definizioan funtsezkoa denak, gizonak emakumeak baino nabarmen gehiago izatea du ezaugarri. Hala, emakumeek historikoki nozitutako diskriminazioa islatzen da emakume nekazari eta abeltzainen gaur egungo egoeran. Nahiz eta ustiategiko titularrak diren emakumeen kopurua handitu den, proportzian, oraindik ere desorekatuta dago kopuru hori.

Desberdintasun hori, ordea, ez dator bat emakumeek nekazaritza-ustiategietan egiten duten benetako lanekin. Izan ere, askotan gertatzen da lan horiek ezkutuan gelditzen direla, eta ordaindu ere ez dituztela egiten (haien lana «familia-laguntza»tzat hartzen da), eta emakumeek ustiategiko titulartasuna ez dutenez, titulartasunari atxikitako lan-eta gizarte-eskubide guztiak galtzen dituztela. Orobat, oso egoera eskasa dute emakumeek: lanaldi partzialak eta aldi baterako kontratuak, eta, horrenbestez, diru-sarrera txikiagoak eta horrekin batera doan egoera ahulagoa pobrezia-arean.

Gainera, lan-banaketa-eredu tradizionala ere aintzat hartu behar da landa-ingurunean, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun handiak sortzen baititu. Emakumeek jarraitzen dute beren gain hartzen etxeko eta zaintza lanak; kasu askotan, gainera, beste inorekin partekatu gabe.

Lan-arloan segregazio nabarmena dago, bertikala zein horizontala. Segregazio bertikala, gizonak erantzukizun eta prestakuntza handiagoko lanpostuetan izaten direlako. Segregazio horizontalari dagokionez, emakume gehienek zerbitzu-sektorean lan egiten dute, eta gizonak, berriz, oreka handiagoz banatzen dira jarduera-sektoreetan.

Bestalde, emakumeen partaidetza nekazaritza-arloko erabaki-organoetan gizonena baino askoz murrizagoa da.

Beste alde batetik, nekazarien lan-arriskuak prebenitze aldera, arreta gizonen osasunari kalte egin diezaieketen kontuetan jarri da, eta ondoren haien ondorioak guztientzat orokortu, emakume zein gizonentzat. Horrela jokatzek, ordea, kasu askotan ekar dezake proposatutako neurri eta material prebentiboek ez erantzutea emakumeen benetako premiei.

Baserritar gazteen egoerari dagokionez, oraindik ere badaude desberdintasunak sexuen artean denbora-banaketari dagokionez, baita nekazaritza-ustiategietan lanean sartzeko aukerei dagokionez ere, besteak beste.

Horrenbestez, beharrezkoa da jarraitzea lanean landa-inguruneko emakumeen eta gizonen egoera desberdinaren berri izateko, eta nekazaritza-arloan espezifikoki, hantxe desberdintasunak areagotu egiten direlako. Emakumezkoen eta gizonetzkoen arteko berdintasuna lortzeko abian jarritako politikak eta neurriak gorabehera, oraindik ere berdinu beharrek alde handiak daude. Horregatik aurrera egiten jarraitu behar da, berdintasunak erabat gainditzen laguntzen duten politikak diseinatuz eta berdintasuna bultzatzeko neurri espezifikoak ezarriz.

Illo horretatik, garrantzitsua da indarrean dauden berdintasunari buruzko legeek ezarritako aginduak bete daitezela sustatzea, aginduok orokorrak zein espezifikoak izan. Orokorrak emakumeen ahalduntzeari, balioen aldaketari eta arlo horretan garatzen diren programetan eta jardueretan genero-ikuspuntua sartzeari buruzkoak dira. Espezifikoek, berriz, helburu hauek dituzte funtsean: emakumeak ustiategiko titularrak edo titularkideak izan daitezela sustatzea; emakumeek landa-ingurunean egiten duten lana errazteko lan-jarduerak bultzatzea; mendekotasunen bat duten pertsonen laguntzeko gizarte-zerbitzuen sare bat garatzea, landa-eremuan lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiteko baliabide gisa.

Horien ildotik eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten neurriak ezarri beharra dagoenez, eta bereziki emakumeek nekazaritza-eremuan pairatzen duten diskriminazioa desagerrarazteko, 2015ean honako hau onartu zen EAEn: [8/2015 Legea, urriaren 15koa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa](#).

Estatutu hori emakume nekazarien eskubideetan oinarritzen da, eta EAeko Administrazio Publikoak eskubideok eraginkortasunez erabil ditzaten bermatzeko betebeharra duela ezartzen du. Tresna horrek, alde batetik, behar diren neurriak ezartzen ditu nekazaritza-sektoreko emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna lortzeko, eta bestetik, sektorearen eremu guztietan genero-ikuspegia sartzeko neurri zehatzak ezartzen ditu.


2. GENERO AZTERTU ALDERDIAK ERAGINA BEHARREKO FUNTSEZKO EBALUATZEKO

2.1 EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Emakumeek landa-eremuetatik hiri-eremuetara emigratzeko joera handiagoa dute gizonek baino. Normalean horren arrazoitzat jotzen da haientzat lan-aukera urri izatea eta beste aldagai batzuen eragina, hala nola: oraindik esleitzen zaizkien genero-estereotipoak, besteak zaintzeko beharra, lanaldi luzeak, gizarte-presioa, kasu gehienetan partekatzen ez diren etxeko ardurak eta emakumeen lana ekonomikoki, profesionalki eta sozialki aitortua ez izatea eta haien bizilagunak, gizonezkoak, hain eboluzionatuak eta irekiak ez izatea.

Hala ere, **landa-emakumeen ehunekoa** (% 49,9) nabarmen handitu da EAEn azken urteetan, XXI. mendeko lehen hamarkadan izandako beheranzko joera gorabehera. Azken hamarkadan, EAeko landa-emakumeen kopurua ia % 4 handitu da, eta ingurune horretako gizonezkoen ehunekoa berdindu du ia (% 50,1).


1. grafikoa. EAeko landa-biztanleen aldakuntza, sexuaren arabera (2001-2021)



Iturria: Biztanleen udal-estatistika (Eustat, 2021a)

2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrien biztanleria adin-taldean arabera aztertuz gero, 65 urtera arteko landa-biztanleriaren maskulinazioa ikusten da, bereziki 20 urtetik 64 urtera arteko taldean, gizonak 4.000 gehiago baitira emakumeak baino. Hori izan liteke, besteak beste, lanerako adina duten emakumeek neurri handiagoan alde egiten dutelako landa-udalerrietatik, lan-aukeren bila edo beren prestakuntza jarraitzeko. Adin handieneko taldean, ordea, landa-emakumeak gehiago dira gizonetzkoak baino, 1.000 gehiago zehazki.

2 . grafikoa. EAeko 2.500 biztanletik beherako udalerrietako biztanleria, adin-talde handien eta sexuaren arabera.



Iturria: Biztanleen udal-estatistika (Eustat, 2021a)

- **Jarduera-sektoreen sexuaren araberako banaketa**

Jarduera-sektoreetako sexuaren araberako banaketak erakusten digu emakumeen ehunekoak zerbitzuen sektorean baino ez duela gainditzen gizonena, eta emakumeak langile guztien % 30 baino gutxiago dira gainerako sektoreetan. Zehazki, EAEn 23.000 **emakume inguru daude nekazaritzaren eremuan lanean**, hau da, sektoreko langile guztien % 29.

1. taula. EAeko landunak sexuaren eta ekonomia-sektorearen arabera (2021IH).

Unitateak: milaka pertsona

	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak (%)
Nekazaritza	2,3	5,7	% 29
Industria	41,1	158,2	% 21
Eraikuntza	4,9	43,2	% 10
Zerbitzuak	394,0	270,7	% 59


Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta, EIN (2021).

Gainera, EAEko arrantza-sektorean lan egiten duten 2.000 lagunetatik 35 baino ez dira emakume, eremu horretako landun guztien % 2 baino gutxiago, alegia (Eustat, 2020).

Sexuaren arabera banaketari dagokionez ere ikusten da lan-arloko segregazio nabarmena, hala horizontala nola bertikala. Segregazio horizontalari dagokionez, EAEko emakume landunen % 89,1 zerbitzuen sektorean aritzen dira, eta % 11tik behera baino ez dira gainerako jarduera-sektoreetan banatzen. Gizonen parte-hartzea, berriz, orekatuagoa da; hala bada, presentzia handia dute zerbitzuen sektorean (gizon landun guztien % 56,7), baina baita industrian ere (% 33,1).

Nekazaritzaren eremuari dagokionez, EAEko emakume guztien % 0,5ek baino ez dute sektore horretan lan egiten, baina ehuneko hori halako bi baino gehiago da gizonen kasuan.

3. grafikoa. Jarduera-sektorekako banaketa horizontala EAEko landunen sexuaren arabera



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2021)

Segregazio bertikalari dagokionez, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleen arabera (Eustat, 2021b), EAEko emakumeek zuzendaritzako karguen % 34,2 betetzen zituzten 2019an; ehuneko hori parekotasunetik oso urruti egoteaz gain, ehuneko 1,5 puntu txikiagoa da, halaber, 2018ko emakume zuzendarien ehunekoa baino. Nekazaritzaren eremuan zehazki, emakumeek erabakitze organoetan duten parte-hartzea askoz txikiagoa da gizonek dutena baino. EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) datuen arabera (2021), emakumeak enpresaburu edo kooperatibetako kide gisa lan egiten duten pertsonen % 43,18 dira EAEko nekazaritzaren sektorean.

Nekazaritzari eta abeltzaintzari dagokienez, *Emakumeak euskal landa ingurunean* (Landa Emakumeen Batzordea –LEB–, 2016) lau urtean behingo txostenaren arabera, landa-emakumeen % 42k adierazten dute nolabaiteko lotura dutela nekazaritza edo abeltzaintzarekin. Autokontsumotik nekazaritzako jarduerarako lanbide-dedikaziora joan daiteke lotura hori.

Nekazaritzari lotutako lanen bat duten emakume guztien artean, % 30ek autokontsumorako jardueraren bat dute etxean; % 7, diru-sarreraren zati txiki bat ustiatetik lortzen duten familia batetik datoz, eta % 6 soilik, diru-sarrera guztiak edo gehienak ustiatetik batetik lortzen dituzten familia batetik.

Adinaren arabera azterketak aldaketa adierazgarria erakusten du 2012ko txostenaren datuekin alderatuta. 2016ko datuen arabera, 65 urtetik gorako emakumeen % 61ek lotura dute nekazaritza-eremuarekin, baina % 4 baino ez nekazaritza-ustategi profesionalekin. Nekazaritza-eremuarekin lotura handien duen hurrengo adin-taldea 40 urtetik 64 urtera arteko emakumeena da (% 25).

Landa-eremuko emakumeen % 62 nekazaritzan jarduten duen familia batetik datoz, eta ehuneko hori % 77ra iristen da 65 urtetik gorako emakumeei dagokienez.

Nekazaritzako ustategietan bizi direla adierazten duten emakume guztiek nekazaritzako eta abeltzaintzako berezko lanak egiten dituzte. Emakume horien % 70 baino gehiago ustategiaren kontuez arduratzen dira, eta % 61ek edo haren kudeaketa egiten dute (LEB, 2016).

Gizarte-babesaren eta enpleguari lotutako eskubideen falta bereziki nabarmena da nekazaritzan eta abeltzaintzan diharduten emakumeen kasuan. Izan ere, titularitatea eta titularitate partekatua aitortza eta haiei lotutako eskubideak lortzeko bidea ez da erraza izan. Kontu hori aztertuko dugu, hain zuzen, baliabideei buruzko atalean.


2.2 BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

- **Hezkuntza eta prestakuntza:**

Oro har, landa-emakumeen prestakuntza-mailan ez dago alde handirik EAEko emakumeek orokorrean dutenarekin alderatuta, bereziki maila txikienen artean (LEB, 2016). Hala landa-emakumeen nola EAEko emakumeen % 5ek baino gutxiagok ez dute ikasketarik, eta bi kasuetan antzeko ehunekoa dago, halaber, lehen mailako ikasketak dituztenei dagokienez (% 35etik gora).

Prestakuntza-maila handieneko ikasketetan nabarixeagoak dira aldeak. Lanbide-ikasketei dagokienez, landa-emakumeen ehunekoa (% 18) handiagoa da EAEko emakumeena baino (% 15), baina bigarren mailako ikasketetan alde hori alderantzikatu egiten da; hala, prestakuntza-maila hori duten landa-emakumeen ehunekoa (% 12) txikiagoa da EAEko emakumeen ehunekoa baino (% 17). Goi-mailako ikasketak dituzten emakumeei dagokienez, landa-eremuan emakume unibertsitarioen ehunekoa % 28 da, EAEko emakumeen ehunekoa baino 3 puntu handiagoa.

4. grafikoa. Landa-emakumeen eta EAEko emakumeen prestakuntza-maila.




Iturria: Emakumeak Euskal Landa Ingurunean, (LEB, 2016)

Datu horien bitartez ondorioztatu ahal da EAEko landa-emakumeen prestakuntza-maila handia dela; gainera, unibertsitate-ikasketak dituzten landa-emakumeen ehunekoa handiagoa ere bada maila bereko EAEko emakumeen ehuneko orokorra baino. Nolanahi ere, landa-emakumeen % 2k baino gutxiagok hautatu dituzte lanbide-heziketako edo unibertsitateko nekazaritza-ikasketak (LEB, 2016).

Emakumeek landa-ingurunearekin lotutako ikasketetarantz duten joera txikiago hori ez da landa-emakumeen artean bakarrik ikusten. Emakumeek eta gizonak nekazaritza-eremuarekin eta landa-ingurunearekin lotutako lanbide-heziketako (LH) eta unibertsitateko ikasketen eremuetan duten partaidetza aztertuz gero, emakumeen ehuneko oso txikia ikusten da nekazaritza-eremuarekin lotutako ikasketetan, segur aski horiek, genero-sozializazio tradizionalaren arabera, «gizonak egindako» lan batekin lotzen direlako oraindik.

EAEko LHko ikasketei dagokienez, 2018-2019 ikasturtean nekazaritza-arloko prestakuntza-ziklo guztietan matrikulatutako emakumeak ikasle guztien % 25etik behera izan ziren. Ziklo horietako batzuetan haien kopurua anitzez txikiagoa ere izan zen; «natura-ingurunea ustiatzeko eta kontserbatzeko» zikloan adibidez, emakumeak ikasle guztien % 7,3 baino ez ziren.


5. grafikoa. EAEn prestakuntza-zikloetan matrikulatutako ikasleak, sexuaren arabera (2018-2019 ikasturtea).



Iturria: Unibertsitatekan kanpoko irakaskuntzei buruzko estatistikak (Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa, 2019)

Aztergai dugun eremuarekin lotutako unibertsitateko ikasketetan emakumeak gizonak baino gutxiago dira EAEko unibertsitateetako gradu guztietan. Emakumeen ehuneko ikasle guztien % 22 baino txikiagoa da ingeniari nautikoan, eta ehuneko hori are txikiagoa da itsas ingeniarietan, gradu horretan matrikulatutako ikasle guztien % 10etik behera baitira emakumeak.


6. grafikoa. EAEn unibertsitateko graduetan matrikulatutako ikasleak, sexuaren arabera (2018-2019 ikasturtea).



Iturria: Unibertsitate-estatistika (Eustat, 2019a)

EAEko nekazaritzarekin lotutako unibertsitate-ikasketei buruzko daturik ez dago ikasketa-eremu horretan emakume unibertsitarioek zer parte-hartzea duten aztertu ahal izateko. Estatuko eremuan, 2018-2019 ikasturterako datuek erakusten dute nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza eta albaitaritzaren esparruko ikasketetan matrikulatutako emakume unibertsitarioen proportzioa (% 52,6) handixeagoa dela gizonena baino (Unibertsitateetako Ministerioa, 2019). Datu engainagarria da, ordea; izan ere, ikasketa-eremuen artean bereiziz gero, emakumeek behar baino ordezkari txikiagoa dute alor horretako ikasketa guztietan, albaitaritzan izan ezik, azken gradu hori emakumeei egozten zaizkien zainketen eremuarekin lotuta baitago (ikasle guztien % 75,1 dira emakumeak).

7. grafikoa. Estatuan unibertsitateko graduetan matrikulatutako ikasleak, sexuaren arabera (2018-2019 ikasturtea).



Iturria: Unibertsitate-estatistika (Unibertsitateetako Ministerioa, 2019)

- **Enplegua:**

Landa-emakume aktiboen ehunekoa % 56 da, EAEko urte horretako batezbestekoa baino ehuneko 4 puntu gehiago; okupazio-tasa, berriz, % 46 da, EAEko % 45etik gertu (LEB, 2016).

Adina aztertuz gero, 26 eta 39 urte bitarteko landa-emakumeek langabezia-tasa handiagoa dutela ikusten da (% 19), EAEko batezbestekoa baino ehuneko 4 handiagoa, eta 40 urtetik aurrera, berriz, langabezia-tasa % 12ra jaisten da eta horrela mantentzen da erretiro-adineraino.

Nekazaritzan lan egiten duten landa-emakumeak, berriz, landa-emakume guztien % 4 dira, eta etxeakoandreak dira gehienbat (% 44); etxeakoandreen ehunekoa % 52ra handitzen da 55 eta 64 urteko landa-emakumeen artean.

Langabezia-tasari dagokionez, landa-ingurunean % 13 da, eta EAEn, berriz, handixeagoa (% 14). Ordaindutako enpleguen ezaugarriei dagokienez:

- Landa-emakume landunen arteko enplegu mota ohikoena (haien % 75) besteren konturako langilea da, baina hazkundera dago EAEko landa-emakume enpresaburuen eta autonomoen artean, 2012an % 15 izatetik 2016an % 23 izatera igaro baitira. Horren aldean, landa-emakumeen % 2 baino ez dira kooperatibako kide; ehuneko hori ez da 2012tik aldatu.
- EAEn enplegu ordaindua duten emakumeen % 24k **lanaldi partziala** dute, eta, horrenbestez, enpleguari, independentzia ekonomikoari eta lantokian mailaz igotzeko aukerei lotutako eskubide gutxiago sortzen dituzte. Alde horretatik, lanaldi partzialeko kontratuak lan-prekaritatea esan nahi du, pertsonaren independentzia ekonomikoaren maila ezartzen baitu, eta mugatu egiten baititu gaur eta etorkizunean zer aukera dituen (pentsio txikiagoa kobratzea eta lanean mailaz igotzeko aukera gutxiago).

Bestalde, emakumeak lan-merkatuan sartzeko berez sortzen ditu lanpostuak. Emakumeak lanetan hasteak berarekin batera dakar beste emakume batzuk kontratatzea, hala sektore pribatuan nola publikoan (haur-eskolak, ludotekak, eguneko zentroak, eta abar).

Orobat, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak egindako Landa-ingurune genero-berdintasunari buruzko diagnostikoaren arabera (2011), landa-emakumeak lan-merkatuan sartzeko bideak oso ezaugarri espezifikoak ditu, eta ezaugarri horiek nabarmentzen ari dira azken hogeitun urteotan; honako alderdi hauetan zehazten dira:

- Desoreka okupazio-sektoreei dagokienez, zerbitzuen sektoreko gehiegizko pilaketa baitago.
- Soldatapekoen proportzio handia (eta autonomoen eta enpresaburuen proportzio txikia).
- Prestakuntza-maila handia:

- Emakumeen lan ordaindua oso polarizatuta dago, eta aurkako bi muturretan pilatzen da, prestakuntzari, egonkortasunari, ordainketari eta balorazio sozialari dagokienez.

Gizarte-babesaren eta enpleguari lotutako eskubideen falta bereziki nabarmena da nekazaritza eta abeltzaintza diharduten emakumeen kasuan. Izan ere, **titulartasunaren eta titularkidetasunaren** aitortza eta haiei lotutako eskubideak lortzeko bidea ez da erraza izan.

Nekazaritza-inguruneke familia-ustiategiaren eremuan, emakume ugari partekatzen ditu gizonekin nekazaritza-lanak, lan horien parte handia beren gain hartuta eta ondasunak zein lana eskainiz. Dena den, kasu gehienetan gizona baino ez da agertzen nekazaritza-ustiategiko titular, eta horrek zailtzen du ustiategiaren kudeaketatik ondorioztatzen diren eskubide eta obligazioetan emakumeen partaidetza behar bezala aintzat hartzea, berdintasun-baldintzetan.

Ditugun datuen arabera (Eustat, 2016), EAEn erregistratutako 14.580 ustiategietatik 5.568k baino ez dute emakume bat titular; hau da, guztien % 38,2. Desberdintasun hori bereziki nabaria da adin-tarte batzuetan. Ustiategi baten titularrik ez dago 25 urtetik beherako emakumeen artean, eta 35-39 urteko titularren artean % 12 baino ez dira emakumeak. Gainera, ehuneko horrek 15,5 puntu gutxiago ditu ustiategien titular diren adin-tarte bereko estatuko emakumeen ehunekoarekin alderatuz gero (EIN, 2016).

Ustiategien burua zein den aztertuz gero, lortuko dugun irudia antzekoa da oso, eta proportzioz ustiategiko buru diren emakumeak (titular guztien % 35,5) anitzez gutxiago dira ustiategiko buru diren gizonak baino. Adinei begiratuta, alde handien 25 urtetik beherakoen artean eta 35 urtetik 39 urtera arteko tartean dago, emakumeak ustiategiko buru diren guztien % 0 eta % 12,7 baitira, hurrenez hurren.

2. taula. EAEko ustiategien titularrak eta buruak, sexuaren arabera

	Titularrak		Titular buruak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
<25 urte	% 0,0	% 100,0	% 0,0	% 100,0
25 – 29	% 30,6	% 69,4	% 30,6	% 69,4
30 – 34	% 33,7	% 66,0	% 33,5	% 66,1
35 – 39	% 12,0	% 88,0	% 12,6	% 87,4
40 – 44	% 28,2	% 71,8	% 27,0	% 73,0
45 – 49	% 36,0	% 64,0	% 33,2	% 66,8
50 – 54	% 33,9	% 66,1	% 32,3	% 67,7
55 – 59	% 24,4	% 75,6	% 19,0	% 81,0
60 – 64	% 36,5	% 63,5	% 33,9	% 66,1
>65 urte	% 47,3	% 52,7	% 45,3	% 54,7
Guztira	% 38,2	% 61,8	% 35,5	% 64,5

Iturria: Nekazaritzako ustiategien egiturari buruzko inkesta (Eustat, 2016)

Baldin eta azterketa nekazaritzako ustiategien neurriaren arabera egiten bada (EIN, 2016), ustiategi txikietan dago emakume titular gehien: 20 hektarea baino gutxiagoko ustiategietan emakume titullarrak guztien % 35etik gora dira, baina neurri horretatik gora ehunekoa txikiagotzen da ustiategiaren neurria handitu ahala; hori horrela, 100 hektarea baino gehiagoko ustiategietan titularren % 12,5 baino ez dira emakume.

Titulartasun partekatuari dagokionez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren RETICOM sistemaren arabera (2021), gaur egun EAeko 43 ustiategik dute titulartasun partekatua.

- **Lan-osasuna:**

Nekazaritza-sektorean lan egiten duten emakumeek, oro har, murriztua dute **lan-arriskuak prebenitzeari buruzko informaziorako sarbidea**, haietatik askok ez baitute parte hartzen informazio hori jasotzeko moduko eremuetan. Izan ere, kooperatibetan eta sindikatuetan oso partaidetza txikia dute, eta prestakuntza gutxi jasotzen dute langile gisa hobetzeko eta/edo birziklatzeko, edo ez dute inolako prestakuntzarik jasotzen sektoreko profesional gisa behar diren ikasketak izateko.

Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan integratzeko jarraibideak (Osalan, 2017) gidaliburuan genero-ikuspegitik egindako lan-osasunaren azterketak adierazten duenez, gai horri buruzko azterketa gehienak batez ere gizonez osatutako langile multzoetan oinarritu dira, emaitzak langile guztietara estrapolatzean horrek dakarren alborapena ekarrita. Gainera, emakumeen lan-osasuneko arazoak aztertu dituzten ikerketek emakumeen ugaltzeko ahalmenean jarri dute arreta; hala, amatasuna babestea izan dute ardatz, eta alde batera utzi dituzte lan-egoerak emakumeen osasunaren beste alderdi batzuetan izan litzakeen ondorioak.

Gero eta ebidentzia handiagoa dago lan-arriskuak eta haien ondoriozko patologiek ez dietela era berean eragiten emakumeei eta gizonei; zentzua du, horregatik, laneko segurtasun eta osasunean genero-ikuspegia aplikatzea, honako arrazoi hauengatik, besteak beste:

- Desberdintasun biologikoak: haurduntza eta edoskitzea bereziki.
- Lan-merkatuko segregazio horizontala eta bertikala.
- Lan-prekaritatea: lan prekarioetan emakume gehiago daude; lan horiek partzialak, aldi baterakoak eta ordainsari txikiagokoak izaten dira.
- Ekoizpen- eta ugalketa-lanen sexuaren araberako banaketa.

Hala, emakumeek eta gizonek egoera eta jarrera sozial eta ekonomiko desberdinak dituzte, eta osasunaren arloko arrisku eta arazo desberdinak dituzte horien ondorioz. Orokorrean, emakumeek kausa anitzeko etiologiako arazoak izaten dituzte, laneko eta lanetik kanpoko arrisku-faktoreak uztartuta, eta horien ondorioak epe luzera ageri ohi dira; gizonei dagokienez, berriz, lanaren ondorioz izaten dituzten osasun-arazoak istripu traumatikoekin lotuta egoten dira.

Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak (azaroaren 8ko 31/1995 Legea) 5.4 artikuluan hauxe adierazten du: «administrazio publikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren eragingarritasuna sustatuko dute; horretarako, sexuarekin zerikusia duten aukera guztiak hartuko dituzte kontuan datuak bildu eta tratatzeko sistemetan nahiz lan-arriskuen prebentziorako egiten diren azterketa eta ikerketa orokorretan, egoera jakin batzuk detektatu eta horiei aurrea hartzeko xedearekin, egoera horietan lanak kalteak eragin eta kalte horiek sexuari loturik egon daitezkeenean».

Emakume Nekazarien Estatutuaren 23. artikulua arabera, emakume nekazariak eskubidea dute haien osasuna babes dadin lanean, eta adierazten du, halaber, administrazio publikoek aintzat hartuko dituztela gizonen aldean dituzten desberdintasunak, emakume nekazarien laneko arriskuen prebentzioa eraginkortasunez aplikatu dadin.

- **Sexu-jazarpenera eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenera:**

Nekazaritzaren alorrean gerta daitezkeen **sexu-jazarpenera eta/edo jazarpenera sexistei** dagokienez, aski bereziak dira, landa-ingurunearen ezaugarri espezifikoak eta nekazaritzaren berezko baldintzak direla medio. Izan ere, kasu askotan zaila da familiarteko harremanak eta lan-harremanak elkarrengandik bereiztea. Genero-indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren (GIGO) *El acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el ámbito laboral en España* (2021) azterketaren arabera, estatuko nekazaritzaren eremuan sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpenera pairatu duten emakumeen artean, % 94k ez zuten inolako baxerik eskatu, era horretako egoeraren bat pairatzeak eta lanpostuan jarraitzeak emakumeen osasunean eduki dezaketen ondorio negatiboak edukita.

Landa-eremuko emakumeen eskarmentutik abiatuta osasuna aztertzen duten beste ikerketa batzuen arabera, osasun-kontuetako oztopoetariko bat da ez dela erantzukizuna partekatzen, alegia, emakumeek ia zainketa-lan guztiak hartzen dituzte beren gain.

- **Denbora-banaketa:**

Emakume eta gizon nekazarien arteko desberdintasunak ikusteko, eta, oro har, nekazaritza-eremuko emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak ulertzeko ezinbestekoa da aztertzea nola banatzen duten batzuek eta besteek denbora.

Emakume batek 50 ordu ematen ditu lanean astean, lan hori ordaindua, etxeko lana edo zainketei dagokiena izan (LEB, 2016).

65 urtetik beherako landa-emakumeen % 46k lan ordaindu bat dute, eta astean 35 ordu ematen dute, batez beste, lan horretan (haien denbora osoaren % 21). Lanaldi osoko enpleguak dituzten landa-emakumeek beren denboraren % 24 ematen dute lan ordaindian, eta lanaldi partzialerako enplegu bat dutenek, berriz, beren denboraren % 14 bideratzen dute xede horretara.

Etxeko lanari dagokionez, landa-emakumeetan gutxi gorabehera % 40k zuzenean eta bakar-bakarrik hartzen dituzte beren gain etxeko lanak, eta, batez beste, 3 ordu eta 22 minutu ematen dituzte lan horietan. Bereziki 55 urtetik gorako emakumeek hartzen dute gehienbat etxeko zereginen ardura osoa. 26 urtetik 54 urtera artekoetan gora egiten du erantzukidetasuna; hala eta guztiz ere, landa-etxe guztien % 12tan baino ez dira gizonak berdintasunez edo emakumeak baino neurri handiagoan arduratzen etxeko lanaz.

lido horretako alderdi garrantzitsu bat da ea nori kudeatzen dituen etxeko zereginak; izan ere, batzuetan lan horien berdintasunezko banaketa egon arren, emakumeek ia guztiz hartzen dute haien gaineko zeharkako erantzukizuna. Hori horrela, emakumeek lan bikoitza hartzen dute beren gain; alde batetik, besteak beste, otorduen eta etxearen antolaketa eta seme-alaba adingabeei edo mendekotasuna duten pertsonari arreta ematea kudeatu behar dute, eta bestetik, zuzenean hartzen dituzten zereginak ere egin behar dituzte.

Zainketei dagokienez, landa-emakumeen % 47k mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko erantzukizuna dute. Landa-emakumeek batez beste 9 ordu ematen dituzte astean beste pertsona batzuk zaintzen, baina etxean mendekotasuna duten pertsonak edo adingabeak daudenean (horrela da EAEko landa-etxeetako % 45ean), astean horretan emandako orduen batezbestekoa 25 ordotara igotzen da. Zainketa-lanak partekatutak direnean, emakumeek astean 19 ordu ematen dituzte zeregin horietan.

Aisari dagokionez, lan ordainduak eta ugaltze-lanak –eta azken horretan, adingabeak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeak bereziki– eragiten dute gehien emakumeek bizitza sozialera bideratzen duten denboran. Hala, emakumeek batez beste 13 ordu bideratzen dituzte astean bizitza sozialera, baina lanaldi osoko lana duten emakumeentzat, berriz, batezbesteko hori 9 ordukoa da astean, eta 10 ordukoa adingabeak eta/edo mendekotasuna duten pertsonak ardurapean dituzten emakumeen kasuan.

Landa-emakumeek astean 5 ordu eta erdi ematen dituzte batez beste **joan-etorrietan**; batezbesteko hori, halere, astean 7 ordukoa da landa-emakume gazteen artean, prestakuntza edo lanaren ondorioz segur aski, eta 4 ordu eta erdikoa, berriz, 65 urtetik gorako emakumeen artean.

Hala, lanaren sexuaren araberako kontzeptua agertzen zaigu. Emakumeak arian-arian lan-merkatuan sartzen ari diren arren, emakumeek gizonak baino neurri handiagoan egiten dituzte etxearekin lotutako lanak oraindik, eta gizonak etxetik kanpoko lanak egiten dituzte batez ere. lido horretatik, sexuaren araberako esleipen tradizionaletik, familia eta etxea zaintzeko lanak emakumeen esku geratu dira beti, eta horrek baldintzatu ditu eta jarraitzen du baldintzatzen emakumeon kontu guztiak, lan-merkatuan sartzearekin gertatzen den bezala.

- **Gidatzeko baimena eta autoa:**

Landa-ingurunean mugitzeko eta autonomia izateko aukerak zuzenean lotuta daude ibilgailu pribatua eta gidatzeko baimena izatearekin. Emakumeen % 60k baino gehiagok gidabaimena dute, eta gehienek auto pribatua erabili ohi dute (LEB, 2016). Adina

garrantzitsua da; izan ere, 26 eta 54 urte bitarteko emakumeen % 80ak gidatu ohi dute; 65 urtetik gorako emakumeen % 60k baino gehiagok ez dute gidabaimenik. Gidatzeko baimenak herritik kanpo jarduerak egiteko aukera ematen du garraio publikora edo beste pertsona batzuegana jo beharrik gabe, eta horrek hautatzeko aukera erraztu eta autonomia pertsonala ematen du. Era horretan, gidabaimenik ez duten 65 urtetik gorako landa-emakumeak neurri handiagoan daude garraio publikoaren (haien % 40) edo beste pertsona batzuen mende (% 60) –senideak edo lagunak oro har– mugitu ahal izateko.

Nolanahi ere, gidabaimena duten emakume guztiek ez dute mugitzeko askatasunik, emakume guztiek ez baitute beti ibilgailu bat eskura; horrenbestez, landa-ingurunean garraio publikoa ezinbesteko baliabidea da emakumeak mugi daitezen. Ildo horretatik, landa-emakumeei buruz dauden Eustaten azken datuen arabera (2017), landa-emakumeen % 45en iritziz handitu behar da garraio publikoaren maiztasuna, eta horien % 32ren ustez, haren ordutegia.

- **Ekipamenduak eta zerbitzuak:**

Ekipamenduak eta zerbitzuak eta haietarako sarbidea izatea funtsezkoa da landa-ingurunean, bereziki osasunaren, hezkuntzaren edo garraioaren eremuan.

Emakumeak Euskal Landa Ingurunean (LEB. 2016) azterlanak ekipamenduen eta zerbitzuen arloan lurraldeak dituen indargune batzuk zehazten ditu. Hala, nabarmentzen du EAEko landa-emakumeen % 88k lehen mailako osasun-arreta dutela udalerrian bertan edo etxetik 15 minutura, emakume horien % 80k baino gehiagok gertuko ingurunean haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeak dituztela, eta % 60k baino gehiagok elikagaien erosketak herrian bertan edo haren inguruan egiten dituztela.

EAEko landa-emakumeek beste zerbitzu edo ekipamendu batzuk handitzeko edo hobetzeko eskatzen dute, ordea. EAEko landa-emakumeek honako premia hauek dituzte zehazki:

- **Ekipamendu sanitarioak:** EAEko landa-emakumeek gehien eskatutako bi baliabideak espezialista medikoak eta anbulantzia medikalizatuak dira, hala batzuetan halakorik ez dagoelako, nola zerbitzu horiek, dauden tokietan, hobetu beharra dagoelako.
- **Hezkuntza-ekipamenduak:** Emakumeek eskolaz kanpoko jardueren eskaria hobetu beharra nabarmentzen dute. Gainera, ildo horretako beste hobekuntza bat bigarren hezkuntzako ikastetxeekin lotuta dago, horien gabeziak mugitu beharra areagotzen baitu ikasketa-maila horretatik aurrera.
- **Beste ekipamendu batzuk:** Osasunaren edo hezkuntzaren arloko beharretatik haratago, banda zabaleko konexioa da EAEko landa-emakumeek, oro har, gehien eskatzen duten premia; adinaren arabera aztertuz gero, baina, ikusten da beharren lehentasuna aldatzen dela 65 urtetik gorako emakumeen artean, neurri handiagoan eskatzen baitute horiek elikagaidenda gehiago egotea ingurune hurbilean.

Emakumeak eta osasuna EAEko landa-eremuetan azterlanaren arabera (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, 2006) –eta haren ondorioek ez

dute indarririk galdu-, ekipamendu eta zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko zailtasunak daudenez, eskaera gehienbat pertsonen zainketarekin zerikusia duen guztiaren ingurukoa da; eskaera hori, horrenbestez, oso lotuta dago generoaren arabera lan-banaketaren eredu tradizionala indarrean irautearekin, eredu horren ezaugarria baita, hain zuzen ere, emakumeek gizonak baino parte-hartze handiagoa izatea etxeko lanetan eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzen.

- **Generoaren arabera soldata-arrakala:**

Soldata-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan (Emakunde, 2018) txostenaren arabera, generoaren arabera soldata-arrakala emakumeen eta gizonezkoen batez besteko soldaten artean dagoen aldea da, ELGAren irizpideari egokitu.

Genero-arrakalak Euskadiko lan-merkatuan izeneko txostenean (ISEAK fundazioa, 2019), berriz, ordainsari-alde hori aurkitzeko, emakumeek eta gizonezkoek orduko irabazten duten batez besteko soldata alderatzen da. Azterketatik ateratzen diren ondorio nagusien artean deigarriki nabarmentzen da hala emakumeentzat nola gizonentzat soldatak handiagoak direla emakumeen eta gizonen berdintasunezko partaidetza dagoen lanbideetan. Gainera, soldata-arrakala handitzen da lanbideen feminizazio-maila handitzen den heinean.

3. taula. *Emakumeen eta gizonezkoen soldata (€/ordu) eta soldata-arrakala (%) lanbideen feminizazioaren/maskulinizazioaren arabera*

	Emakumeak	Gizonak	Soldata-arrakala
Oso maskulizatua	8,8 € orduko	9,7 € orduko	% 9
Maskulinizatua	9,7 € orduko	10,8 € orduko	% 10
Orekatua	11,2 € orduko	12,7 € orduko	% 12
Feminizatua	9,2 € orduko	10,4 € orduko	% 12
Oso feminizatua	8,7 € orduko	10,1 € orduko	% 14

Iturria: *Genero-arrakalak Euskadiko lan-merkatuan*, ISEAK fundazioa (2019)

Nolanahi ere, txosten beraren arabera, soldata-arrakalaren okupazio-mailaren arabera azterketak adierazten duenez, nekazaritzako peoi enplegatutako pertsonetan dago emakumeen eta gizonen arteko bigarren soldata-alderik handiena (% 20), nekazaritzako eremua oso maskulinizatua dagoen arren.

EAEko 18 urte edo gehiagoko biztanle landunen batez besteko errenta pertsonal erabilgarriari buruzko datuen arabera (Eustat, 2019b), nekazaritzan, abeltzaintzan, basogintzan eta arrantzan lan egiten duten emakumeen batezbestekoa 11.272 € da, hau da, eremu bereko gizonezkoen batez besteko errenta baino 5.691 € gutxiago. Lanbide-jardueraren arabera, alde handien kooperatibista enplegatutako pertsonen artean dago. Izan ere, emakumeen batez besteko errenta 22.768 € da eta gizonezkoena, berriz, 34.338 €; emakumeek 11.570 euro gutxiago kobratzen dituzte, alegia.

2.3 EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Emakumeen partaidetza erabaki-organoetan gizonena baino askoz murrizagoa da, bai nekazaritza-garapenarekin zerikusia duten kontuetan, baita zehazki nekazaritza-arloko erabakiak hartzen direnetan ere. Esan daiteke, beraz, gizonen eta emakumeen ordezkartza ez dela orekatsua.

Nolanahi ere, **Landa Emakumeen Batzordea (LEB)** nabarmendu behar dugu. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak bultzatu zuen 2004an eta honako hauek osatuta dago gaur egun:

- Landa-inguruneko emakumeen elkarteak: Landa XXI, Arabako Baserriar Inguruko Emakumeen Sarea, Gure Soroa eta Hitzez Baserriko Emakumeen Elkarteak.
- Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundiak.
- Emakunde
- HAZI fundazioa
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europako Politiketako Zuzendaritza

Bere helburu nagusia landa-ingurunean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea, emakume nekazarien egoerari arreta berezia jarrita. Horretarako, hilean behin biltzen da jarduketak proposatzeko; azken urteotan ahalduntzean (landa-emakumeen autonomia pertsonala, baliabide ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea, eta partaidetza soziopolitikoak), eta gizarte-antolaketa erantzukidean.

Zifrak 2019. Emakumeak eta gizonak Euskadin (Emakunde, 2019) txostenaren arabera, EAEko emakumeek eta gizonak ez dute pareko parte-hartzerik eremu instituzional eta sozialean, ezta erabakiak hartzeko eremuan ere.

Nolanahi ere, erakunde-eremuan, Eusko Jaurlaritzaren webguneko datuen arabera (2021), Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren buru emakume bat dago, Maria Aranzazu Tapia Otaegui, 2020ko irailetik. Gainera, Sail bereko zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuneko presentzia dagoela ikusten da.

Hiru foru-aldundiek, ordea, gizonezko bat dute ahaldun nagusi (Emakunde, 2019), baina sailletako diputatuen edo zuzendaritzak eta/edo idazkaritzak betetzen dituzten pertsonen artean, halere, antzeko kopuruan daude emakumeak, eta gizonak baino gehiago ere badira zenbaitetan.

Datu horietan ikusten denez, landa-inguruneari eta nekazaritzari lotuago dagoen EAEko erakundeen esparruan emakumeen ordezkartza handia dago; hala ere, landa-herritarrengandik hurbilen dauden botere-postuetan oso presentzia txikia dute oraindik. 2019ko maiatzean egindako hauteskundeen ondoren, emakumeek eskuratu zituzten alkatetzen % 29,6; 2015eko emaitzen aldean ehuneko 4,1 puntu gehiago izan arren, alde

handia dago oraindik gizonekin alderatuta, haienak baitira alkatetzen gainerako % 70,4ak.

Zuzendaritza-organoetako presentziari dagokionez, *Emakumeak Euskal Landa Ingurunean* (LEB, 2016) txostenaren arabera emakume nekazarien % 42k baino ez dute parte hartzen kooperatiben, sindikatuen eta abarren bileretan, eta eutsi egiten zaio, beraz, nekazaritza-ustiategiaren aurpegi publikoaren maskulinizazioari.

EAEko nekazaritza-sektorean 9.000 emakumek baino gehiagok lan egiten badute ere, % 25 baino ez dira nekazaritzako elkarten eta erakundeen organoetan (EGJIS, 2021).

Kontsulta eta aholku-organoei dagokienez, organo horietako hirutan betetzen dira gizonen eta emakumeen ordezkariak orekatua lortzeko 4/2005 Legeak ezarritako parametroak (% 40-% 60), eta horietatik bakar batean da emakume bat buru.

4. taula. Emakumeen eta gizonezkoen presentzia kontsulta- eta aholku-organoetan

	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak (%)	Presidentetza
Plagizidei buruzko arautegia garatu eta aplikatzeko Batzorde Teknikoa.	3	4	% 42,8	G
Euskadiko Ekoizpen Integratuakoko Koordinazio Batzordea	3	7	% 30	G
Landaberri	4	4	% 50	E
Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordea	6	7	% 46,2	G

Iturria: Zifrak. Emakumeak eta gizonak Euskadin (Emakunde, 2019)

Nekazaritza-sindikatuak dira parte hartzeko beste eremu garrantzitsu bat. Bildutako azken datuen arabera, kasu gehienetan zuzendaritza-organoetan ez dago ordezkariak orekatuak:

- UAGA (Arabako Nekazarien Elkarte): UAGaren webguneko bertako datuen arabera (2021), hala lehendakariaren nola lehendakariordetza gizonenak dira, eta Batzorde Betearazlea osatzen duten gainerako 6 postuetan (kideak eta ordezkariak) emakume bakar bat dago.
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna): EAEko baserri profesionalen nekazaritza-erakundearen lehendakariaren gizonenak bat dago, orobat.
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkarte) Konfederazioa: EAEko nekazarien eta abeltzainen sindikatu nagusiaren lehendakariaren gizonenak bat dago, halaber, eta haren zuzendaritza ez dago emakume bakar bat gaur egun.

EAEko Jaurlaritzaren **enpresa eta erakunde publikoetako** goi-karguetako emakumeen ordezkariak (Emakunde, 2019) ez da orekatua, kasuen % 65,5ean gizonenak betetzen baitituzte kargu horiek. Gidaliburu honen eremuari gehien lotutako erakundeetan, emakumeek botere-postuetan duten presentzia ere murrizta da oso (% 33,3), eta horietatik bitan baino ez dago emakume bat zuzendaritza.

5. taula. Emakumeak eta gizonak EAEko enpresa eta erakunde publikoetako goi-karguetan

	Emakumeak	Gizonak
NEIKER-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea SA*	1	1
HAZI Fundazioa	0	1
ELIKA - Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa	1	0
IHOBE SA, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	0	1
Uraren Euskal Agentzia	0	1
Guztira (%)	2 (% 33,3)	4 (% 66,7)

Iturria: Zifrak. Emakumeak eta gizonak Euskadin (Emakunde, 2019)

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna zela-eta, 2010eko urriaren 15ean, Guardian egindako lan-jardunalditik sortutako testuan, hau da, *Guardiako Adierazpenean* (LEB, 2010), eta landa-eremuko ehunka emakumek egindako gogoeten fruitu gisa, honako hau baieztatzen da, **emakumeek gizartean, politikan eta ekonomian parte hartzeari** dagokionez:

- Landa-eremuko emakumeek ez dute parte hartzen berdintasun-baldintzetan landa-eremuko erabaki-arloetan, eta desberdintasunak handiagoak dira postuek aitortza handiagoa duten heinean.
- Erantzukizun partekaturik eza oztopo nagusietariko bat da berdintasunean parte hartzeko.
- Emakumeek oraindik sentitzen dute zalantzan jartzen dela haien balioa erabaki-postuetan, lekutik kanpo daudela, eta lan hori betetzerik izango ez balute bezala. Horregatik, eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasunean aurrera egiteko, beharrezkoa da aurrez sortutako ideia horiek gainditzea, eta emakumeek egiten duten lana eta egiten duten ekarpena baloratzea.
- Lanpostu jakin batzuetan parte hartzeko, emakumeek sentitzen dute bizitzaren aukera garrantzitsu batzuk baztertu edo atzeratu behar dituztela: amatasuna, esaterako.
- Gizonen premiak aintzat hartuta antolatuta da partaidetza erabaki-esparruetan (bileren ordutegiak, eta abar). Horregatik ezarri behar dira lan egiteko modu berriak, gizonen zein emakumeen premiak kontuan hartzen dituztenak.

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren hamargarren edizioan (2013) 300 emakumek baino gehiagok parte hartu zuten, eta EAEko landa-etorkizuna eraikitzeke duten eginkizunaren garrantzia aldarrikatu zuten (EGJIS, 2021).

Halaber, **landa-emakumeek elkarreetan parte hartzeari** dagokionez, *Emakumeak Euskal Landa Ingurunean* (LEB, 2016) azterketaren arabera, landa-emakumeen partaidetza sozial eta politikoak gora egin du 2008tik aurrera (% 32) 2016an landa-inguruneke emakume guztien % 41 izatera iritsi arte. Adinaren arabera aztertuz gero, 15-25 eta 55-64 urte bitarteko emakumeek parte hartzen dute gehien (% 47 eta % 45, hurrenez hurren), eta 65 urtetik gorako emakumeek parte hartzen dute gutxien (% 31).

Kultura-, arte- eta musika-arloko elkarteak dira interes handien pizten dutenak. Gainera, emakume gazteenak emakumeen elkarteko kideak dira, besteak beste.

Landa-inguruneko genero-berdintasunari buruzko diagnostikoak (MAPA, 2010) aipatzen duen bezala, gizonak emakumeek baino ordubete gehiago ematen dute, astean, elkarteetan parte hartzen. Landa-eremuko emakumeen partaidetza oso mugatua da, neurri handi batean genero-erolek bere horretan dirautelako eta etxeko zein zainketa lanak ez direlako berdintasunez banatzen, eta, horren ondorioz, emakumeek lan-zama handiagoa eta lanaldi luzeagoak dituztelako. Elkarte motaren arabera ematen duten denborari dagokionez, honako datu hauek jasotzen dira:

6. taula. Emakumeen eta gizonen presentzia elkarteetan

	Emakumeak	Gizonak
Lanbide eta politika arloko elkarteak	1h 31 min	2h 33 min
Gizarte-, kultura- eta erlijio-elkarteak	34 min	30 min

Iturria: Landa-inguruneko genero-berdintasunari buruzko diagnostikoa (MAPA, 2010)

Ikus daitekeenez, denborarik gehien elkarte profesional eta politikoetan ematen dute, baina alde handia dago, halere, gizonak eta emakumeek horrelakoetan ematen duten denborari dagokionez.

Orobat, gizonak eta emakumeek elkarte horietan duten partaidetzari dagokionez, lehen aipatutako diagnostikoaren arabera, gizonak dira elkarte politiko eta profesionaletan parte hartzen duten pertsonen % 69, eta emakumeak gainerako % 31ak, eta, horrenbestez, gizonak nagusi dira nabarmen. Gizarte-, kultura- eta erlijio-elkarteetan dagoen partaidetzari dagokionez, berriz, partaidetza orekatua dago ia: emakumeak % 51 dira, eta gizonak, % 49.

- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko laguntzak Emakume Nekazarien Estatutuaren esparruan (ENE, 2021):**

Emakume Nekazarien Estatutuaren jarraipen Batzordea 2018an eratu zenetik, emakume nekazariak eta haien lana aitortzeko eta ikusarazteko ekintzak lehenetsi dira, eta Eusko Jaurlaritzak babestu egin ditu zenbait laguntzaren bitartez:

- Genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesu bati ekiteko laguntza tekniko kontratatzeko laguntzak.
- Emakume nekazarien lana aitortzen laguntzen eta elkartegintza zein chalduntzea sustatzen duten ekintzetarako laguntzak.

Laguntza horiek nekazaritza-sektorean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea dute helburutzat, eta laguntzea Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko Legean (urriaren 15eko 8/2015 Legea) ezarritako helburuetako batzuk, partaidetza sozial eta politikoari dagokionez, betetzen, bai eta nekazaritza-sektoreko emakumeak aintzat hartu eta ikusarazten ere.

2.4 GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Sistema patriarkalean, emakumeak ugalketa-rolaren pean egon dira beti, eta horrek baldintzatu ditu haien bizitzaren gainerako kontuak eta gizarte-harremanak. Gizonei familia-unitatea ekoitzi/hornitzeko eginkizuna esleitu zaie, eta emakumeei, berriz, **zaintzaileen ugalketa-eginkizuna**, zeina etxeko eremu pribatuari lotuago dagoen.

Hori horrela, landa-ingurunean, eta lehenengo sektorean era espezifikoago batez, **zenbait estereotipo eta rol onartzen dira oraindik emakume edo gizon izate hutsagatik**, eta, horrenbestez, desparekotasun handiak sortzen dira sexua dela-eta.

Lehenengo sektorean, gizonak eta emakumeak zeregin desberdinak hartu izan dituzte beren gain; hala, emakumeak egindako lanak «familia-laguntza»tzat jo izan dira, edo are gehiago, ez dira ezta nekazaritza-lan gisa ere aitortu (ustiategietako administrazio-lanak...). Emakumeen lan horiek **gutxietsi edo ezabatzeak** emakumeak sektorean bigarren maila batean egotea ekarri du; hala bada, gutxiagotan izaten dira ustiategien titular, eta, horren ondorioz, ez dituzte eskuratzen titularra izateak ematen dituen onura ekonomikoak eta sozialak.

Hala bada, nekazaritza-eremua **gizonen sektoretzat** hartzen da oraindik gizartean, eta horrek eragina du eremu horretako prestakuntzara jotzen duten pertsonengan, eta dakar, halaber, lan egiteko adinean dauden emakumeek landa-ingurunetik hiri-eremura are gehiago migratzea. Izan ere, Landa-ingurunekeo genero-berdintasunari buruzko diagnostikoaren arabera (MAPA, 2010), emakumeek landa-emigrazioan duten parte-hartze handiago hori haientzako lan-aukera urriari egotzi ohi bazaio ere, aski ebidentzia daude beste faktore batzuen garrantzia agerian ipintzeko.

Faktore garrantzitsuenetako bat **estereotipoen eragina** da, emakumeei egozten baitiete oraindik gainerako pertsonak zaintzeko betebeharra, eta horren ondorioz, haien kargu uzten da beste pertsona batzuk zaintzea; baina bestelako faktoreak ere badaude –hala nola gizartearen presioa, lan-karga handia (ekoizpen- eta ugalketa-lanak batzearen ondorioz; horri «lanaldi bikoitza» esaten zaio), eta gizonen bilakaera eta irekitasun txikiagoa–, eta alderdi horiek bestelako aukerak bilatzera bultzatzen dituzte emakumeak.

Gehienek jo ohi dute oraindik etxeko eta zaintzeko lanak **emakumeen ardura** direla, eta emakumeen kontura baino ez dira uzten maiz, eta horrek epe ertain eta luzera oso nekez jasatekoa den lan-karga dakarkie, sozialki bidegabea. Horri gehitu behar zaio adineko pertsona ugari daudela mendekotasun-egoeran eta ez direla aski eta/edo desegokiak direla familiei zainketaren karga arintzen lagunduko lieketen zerbitzuak; esate baterako, urriak dira honako zerbitzu hauek (batzuetan egon ere ez daude): haur-eskolak, eskola-jantokiak, bai eta adinekoentzako edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroak eta egoitzak. Horren guztiaren ondorioz, landa- eta nekazaritza-eremuko lan-merkatuan sartzen ahalegintzen ari diren emakumeek beraiek egiten dute ia zainketa-lan guztia familiaren barruan, eta horrek lan-aukerak murriztea dakarkie ezinbestean (ezaugarriak, prestakuntza, erabakitze eremuetan parte hartzeko aukera...). Lan horiek, gainera, ez dira aintzat hartzen, ez gizartean, ezta ekonomikoki ere.

Emakume nekazariak eta landa-ingurunean bizi diren emakume askoren lana ezkutatu eta gutxiestearen ondorioz, sektorearentzat funtsezkoak diren diagnostikoetatik eta planifikazioetatik **kanpo geratzen da genero-ikuspegia**, nekazarien lan-arrikuak prebenitzeko planifikazioan edo sektorean egiten diren ikerketa eta diagnostikoetatik kanpo, esate baterako.

Indarkeria matxistaren fenomenoak da landa-ingurunean genero-ikuspegitik aztertu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat. Genero-indarkeria emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-ezaren adierazpenik muturrekoena da. Landa-ingurunean, genero-desberdintasuna areagotu egiten da habitat-, familia-, gizarte- eta ekonomia-egoeraren ondorioz (Martínez MA eta Camarero LA, 2015), eta hori bereziki nabarmentzen da etxeko lanen banaketan, baliabide ekonomikoen kudeaketan edo lurrak eskuratzeko aukeretan dagoen desparekotasunean, dagoeneko adierazi ditugun beste alderdi batzuen artean.

Indarkeria matxista emakumeen aurka doa emakume izate hutsagatik, eta emakume oro izan daiteke haren biktima, beraz. Hala ere, landa-ingurunean egoera berezi batzuek (Gaztela eta Leongo Batzarra eta ISMUR, 2019) baliteke eragina izatea hura gerta dadin, eta landa-emakumeek, ondorioz, hura pairatzeko arrisku handiagoa izatea:

- Habitataren neurri txikiagoa: landa-udalerrietan, habitata neurri txikiagoa denez, estuagoak izaten dira harremanak, eta gertutasun handiagoa dago bertan bizi direnen artean, eta horren ondorioz, askotan, biktimak ez ditu indarkeria-egoerak jendaurrean ikusarazten eta/edo salatzen.
- Lan-aukera txikiak: emakumeek landa-ingurunean neurri handi batean mugatuak dituzte familiako ekoizpen-egituratik kanpo soldatapeko lana egiteko aukerak, eta horrek laneratzeko zailtasun handia dakarkie, bai eta independentzia ekonomikoa lortzeko aukera gutxiago ere.
- Biztanleriaren zahartzea: landa-udalerrietan mendekotasuna duten pertsona ugari bizi dira, eta haiek zaintzeko lana, normalean eta ia soilik, emakumeen ardurapean gelditzen da; emakumeen lan-karga handitzen du horrek.

Alderdi horiek zuzenean eragiten dute landa-emakumeek pairatzen duten genero-desparekotasunaren gainean; hori horrela, ingurune horretan handiagoak dira emakumearen mendekotasuna eta gizonaren kontrola, eta errazagoa da, ondorioz, indarkeria agertzea. Horixe bera jasotzen du, halaber, Genero-indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako makroinkestak (GIGO, 2020), neurri txikiko udalerrietan bizi diren emakumeak nabarmentzen baititu indarkeria pairatzeko bereziki zaugarriak diren emakumeen artean.

Landa-ingurunean proportzioz hiri-eremuan baino salaketa gutxiago egoten badira ere, horrek ez du esan nahi landa-ingurunean emakumeen aurkako indarkeria gutxiago dagoenik. Landa-emakumeek, batetik, zailtasun handiagoa izaten dute pairatutako tratu txarra salatzeke, udalerrietako biztanleen arteko gertutasuna dela-eta, Martínez Garcíak eta Camarero (2015) adierazi bezala, baina horrez gain, landa-emakumeak neurri txikiagoan ohartzen dira jokabide matxistez (horiek izaten dira indarkeriaren ataria), harreman asimetriko oso nabarmenak dituzten testuinguru patriarkaletan murgildurik baitaude.

Hala, 2019ko makroinkestak (Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza, 2020) haxe adierazten du: «zenbat eta handiagoa izan bizi diren udalerria, orduan eta handiagoa da bikotekideen edo bikotekide ohien aldetik pairatutako indarkeria hitzez adierazi duten emakumeen ehunekoak». Alde handiagoak ikusten dira bereziki oraingo bikotekidearen aldetik pairatutako indarkeriaren inguruan; hala bada, indarkeria ikusarazten edo salatzen dute 2.001-10.000 biztanle bitarteko udalerrietan bizi diren emakumeen % 61,3k, bai eta 10.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi direnen % 64,4k ere, baina 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi diren emakumeen % 32,1ek baino ez dute salatu edo laguntza formala edo informala bilatu.

Hori horrela, gaitz hori desagerrarazteko, indarkeria pairatzen duten landa-emakumeentzat babesteko neurriak ezartzea eta zerbitzuak gerturatzea ez ezik, sentsibilizazio-kanpaina gehiago egin behar dira, orobat, landa-udalerrietako biztanleentzat, udalerririk horietan fenomeno ikusezin eta pribatu gisa baitirau indarkeriak neurri handi batean.

Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udal Sarea (Berdinsarea) koordinatzen du 2009tik, Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizitzako Berdintasunerako Europako Ituna erreferentzia gisa hartuta. Berdinsarea 69 udalerriz osatua dago, eta EAeko biztanle guztien % 78ra baino gehiagora iristen da. Helburutzat, berriz, honako hau du: tokiko gobernuek berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra kudeatutako programak eta zerbitzuak bultzatu, indartu, koordinatu eta ebaluatzea.

2.5 BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
Garraio eta ekipamendu publikoaren estaldurarekin pozik dauden emakumeen kopurua handitzea , bereziki landa-ingurunean, talde- eta behar-aniztasuna aintzat hartuta.	1.4.2 helburu operatiboa (VII. EGBP)
Prekaritate-baldintza berezietan gauzatzen diren lan feminizatuen lan-baldintzak eta gizarte-estaldura hobetzea ; besteak beste, zainketako lan ordainduetan eta lehenengo sektorean egiten direnetan.	4.1.6 helburu operatiboa (VII. EGBP)
Emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko baliabideen kalitatean, sarbidean eta hornikuntzan lurraldeen eta udalen arteko aldeak murriztea, batik bat landa-eremuko udaletan.	7.2.1 helburu operatiboa (VII. EGBP)
Landa-ingurunea garatzeko jardueretara bilduko dira emakumeen hezkuntza- eta prestakuntza-maila hobetzeko ekintzak , eta, bereziki, emakumea lan-merkatuan eta enpresetako nahiz elkarteetako zuzendaritza-organoetan sartzea ahalbidetzen duten ekintzak.	30. artikulua , 3/2007 LO
Genero ikuspuntua aintzat hartuta diseinatzea nekazaritzako eta elikagaigintzako sektoreko profesionalentzat prestatutako ikasketak, eta, batez ere, saiatzea gizon nahiz emakumeek inongo estereotipori erreparatu gabe aukera ditzaela beren kualifikazio- eta prestakuntza-programak.	70.3.h) , 17/2008 Legea
emakumeek landa-eremuan egin dezaten laguntzen duten in-jarduera berriak sustatzea.	30. artikulua , 3/2007 LO
Gizarte-zerbitzuen sare baten garapena sustatzea, adingabeak, adindunak eta mendekoak artatzeko, landa-eremuan bizi diren gizon eta emakumeen bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko neurri gisa.	30. artikulua , 3/2007 LO
Aukera-berdintasuna sustatzea, informazio- eta komunikabide-teknologiak eskuratzeko orduan , landa-esparruko emakumeari zuzendutako politika eta jarduerak erabiliz eta teknologia horien ordeko konponbideak aplikatuz, halako teknologiak heltzen ez diren tokietan.	30 artikulua , 3/2007 LO
Baliabideak jartzea ustiategietako titularrak profesionalak eta nagusiki nekazaritzan dihardutenak izatea; bereziki, emakumeak eta gazteak titular izan daitezten bultzatuz.	8.a) art. eta 97. f) art. , 17/2008 Legea
Nekazaritza- eta elikagaigintza-arlorako eragile berriak erakarriko dituzten ekintzei lehentasuna ematea; hau da, emakumezko laborariak eta laborari gazteak erakartzeko ekintzei.	70.3.c) art. , 17/2008 Legea
Genero-berdintasuna aintzat hartzea, eta honako oinarriko printzipio hauek betetzea edozein jarduera mota garatzerakoan: a) Tratu berdina emango zaie nekazari gizon edo emakumeei, emakumeen aldeko ekintza positiboaren kontra ez doan heinean. b) Aukera-berdintasuna emango zaie; horixe izango baita modua landa-ingurunearen garapena bideragarria eta iraunkorra izateko. c) Genero-ikuspegia kontuan hartu beharko da ; hots, besteak beste: arauen bat onartu aurretik, generoaren araberako	74. artikulua , 17/2008 Legea

BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
<p>eraginaren ebaluazioa egin beharko da, eta genero-tratamendua kontuan hartu beharko da nekazaritza, elikagaigintza edo landa-inguruneari buruzko estatistiketan.</p>	
<p>Emakume nekazariaren estatutua arau gisa garatzea, kolektibo horrentzat sustatu beharreko jarduerak arautzeko, eta, inor kanpo utzi gabe, ekintza positibo hauek barne hartuta:</p> <p>a) Prestakuntza-programa bereziak sortzea, bereziki erreparatuz bai teknologia berriei bai informazioaren gizartearen inguruko prestakuntzari.</p> <p>b) Dirulaguntzei lehentasuna eman eta inbertsioak finantzatzen laguntzea familiako ustategiei, titulartasuna emakume batek hartu behar badu.</p> <p>c) Kudeaketa-organo publiko nahiz pribatuetan ordezkari handiagoa izateko mekanismoak sortzea.</p> <p>d) Lana eta familia uztartzea; horretarako, kontuan hartuko dira haurdunaldia eta amatasuna, baimenak eta lizentziak, eta familiari laguntzeko zerbitzuak.</p>	<p>75. artikulua, 17/2008 Legea</p>
<p>Hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-kontuetan eskumena duen sailaren eta lan-arrikuen prebentzioan eskumena duen agintaritzaren arteko hitzarmenak sinatzea, langileen, haien familien eta soldatapeko eta sasoikako langileen osasunerako arriskuak ekar ditzaketen faktoreei buruzko ikerketak, txostenak egiteko eta aholkularitza emateko jarduerak koordinatze aldera, emakumeen eta gizonen osasunean aldeak sor ditzaketen faktoreak kontuan hartuta.</p>	<p>80.a) art., 17/2008 Legea</p>
<p>Udalaren ordezkari politikoan, sexu bien arteko presentzia parekidea bilatuko da. Horretarako, ahalegina egin beharko da toki-hauteskundeetako hautagai-zerrendetan emakumeen eta gizonen kopurua parekidea izan dadin azken hauteskunde-emaitzak kontuan hartuta hautatuak izateko aukerak dituzten postuetan, halako moldez non sexu bakoitzak gutxienez postu horien % 40 har dezan.</p>	<p>25.5 art., 2/2016 Legea</p>
<p>Euskal herri-aginteek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.</p> <p>Lege honen ondoretarako, honakoa da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea.</p>	<p>3.4 artikulua, 4/2005 Legea</p>

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKOA
<u>4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa</u>
<u>Nekazaritza eta Elikadura Politikaren Legea. 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa</u>
<u>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (EGBP)</u>
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren IX. Legegintzaren Programa Dokumentua.
<u>8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa (2015eko urriaren 21eko EHAA, 200. zk.)</u>
<u>2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa</u>
ESTATUKOA
<u>3/2007 Legea, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa</u>
<u>35/2011 Legea, urriaren 4koa, nekazaritza-ustategietako jabetza partekatuari buruzkoa</u>
<u>Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoa 2014-2016</u>
<u>2007-2015 Landa Garapeneko Plan Estrategiko Nazionala</u>
<u>Landa-ingurunean emakumeak sustatzeko plana (2015-2018)</u>
<u>45/2007 Legea, abenduaren 13koa, landa-ingurunearen garapen iraunkorrerako dena</u>
<u>2014-2020 Landa Garapeneko Esparru Nazionala</u>

EUROPAKOA

1305/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko abenduaren 17koa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren bidez landa-garapena laguntzeari buruzkoa eta Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena

2006/702/EE Kontseiluaren Erabakia, Kohesioaren arloko Europako Erkidegoko zuzentarau estrategikoak

2006/144/EE Kontseiluaren Erabakiak landa-garapenaren arloko Europako Erkidegoko gidalerro estrategikoak ezartzen ditu

Emakumeen eta gizonen toki-bizitzako berdintasunerako Europako Gutuna.Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseilua (CEMR).

«Stockholmeko programa: Europa irekia eta segurua, herritarren esanetara eta herritarrak babesteko». 2010

Genero-berdintasunerako Europako Estrategia, 2020-2025

Kontseiluaren 2003ko urriaren 20ko Ebazpena, gizakien eta, bereziki, emakumeen salerosketaren aurka borrokatzeko ekimenei buruzkoa.

Europar Batasunaren gidalerroak, emakumeen aurkako indarkeriari eta emakumeenganako diskriminazio mota ororen aurkako borrokari buruzkoak. 2008.

2006/54/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, enpleguari eta okupazioari lotutako gaietan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa (testu bateqina).

NAZIOARTEKOA

Emakumearen aurkako diskriminazio ezabatzeari buruzko hitzarmena (CEDAW, 22) eta horren protokolo fakultatiboa (1979)

Nazio Batuen 41/128 Ebazpena, Garapenerako Zuzenbideari buruzkoa (1986)

«Lurraren Goi Bileraren barruan onetsitako Rioko Adierazpena (1992)

Genevako Adierazpena, Landa Emakumeei buruzkoa (1992)

Ebazpena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsia, emakumearen aurkako indarkeria mota guztiak ezabatzeko ahaleginak areagotzeari buruzkoa (2012)

Ebazpena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsia, bortxaketa eta bestelako sexu-indarkeria mota guztiak ezabatzeari buruzkoa, bereziki gatazka-egoeretan eta antzekoetan (2008)

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 135/2000 Ebazpena, emakumeari, bakeari eta segurtasunari buruzkoa.

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, 2015

4. DATU-ITURRIAK

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> • EAEko landa-udalerrien ehunekoa • Nekazaritza edo abeltzaintzarekin nolabaiteko lotura duten landa-emakumeen ehunekoa • Emakumeen ehunekoa nekazaritzako zereginaren arabera • Nekazaritzan aritzen diren familietatik datozen emakumeen ehunekoa • Nekazaritza-ustiategiaren kontuetan edo kudeaketan arduratzen diren emakumeen ehunekoa • Landa-emakumeen prestakuntza-maila EAEko emakumeekin alderatuta • Nekazaritza-ikasketak egiten dituzten landa-emakumeen ehunekoa • Landa-emakume aktiboaren ehunekoa • Landa-emakumeen okupazio-tasa • Nekazaritzan lan egiten duten landa-emakumeen ehunekoa • Landa-emakumeen langabezia-tasa • Landa-emakume landunen ehunekoa enplegu motaren arabera • Landa-emakume landunen ehunekoa lanaldi motaren arabera • Besteren kontura lan egiten duten landa-emakumeen ehunekoa • Landa-emakumeek lan ordainduan eta ordaindu gabean batez beste ematen duten orduen kopurua • Lan ordaindua duten landa-emakumeen ehunekoa adinaren eta lanaldi motaren arabera • Etxeko lana bere gain bakarrik hartzen duten landa-emakumeen ehunekoa 	<p style="text-align: center;"><u>Emakumeak Euskal Landa Ingurunean 2016</u></p> <p style="text-align: center;">Landa Emakumeen Batzordea</p>	<p style="text-align: center;">Lau urtean behin</p>

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> • Mendetasuna duten pertsonak eta adingabeak zaintzeko lanak beren gain hartzen dituzten landa-emakumeen ehunekoa • Landa-emakumeek aisian batez beste ematen duten denbora • Emakumeek joan-etorrietan batez beste ematen duten denbora • Gidabaimena duten landa-emakumeen ehunekoa • Landa-inguruneko ekipamendu eta zerbitzuen eskuragarritasuna landa-emakumeen arabera • Landa-emakumeen presentzia erabakiak hartzeko organoetan 		
<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eta gizonen presentzia EAEko nekazaritzaren arloko LHko ikasketetan 	<u>Unibertsitate</u> kanpoko irakaskuntzei buruzko estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa	Urtero
<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eta gizonen presentzia landa-garapenarekin lotutako unibertsitate-ikasketetan 	<u>Unibertsitate-estatistika</u> , EUSTAT	Urtero
<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eta gizonen presentzia nekazaritza, basogintza, arrantza eta albaitaritzarekin lotutako unibertsitate-ikasketetan 	<u>Unibertsitate-estatistika</u> Unibertsitate Ministerioa	Urtero
<ul style="list-style-type: none"> • Landa-eremuko emakumeen ehunekoa 	<u>Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria, lurralde historikoaren, bizileku-eremuaren, sexuaren eta aldiaren arabera. 2020</u> EUSTAT	Urtero
<ul style="list-style-type: none"> • Euskal Autonomia Erkidegoko 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako biztanleria, adin-talde handien eta sexuaren arabera 	<u>Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria, lurralde historikoaren, bizileku-eremuaren, sexuaren eta aldiaren arabera. 2021</u> EUSTAT	Urtero
<ul style="list-style-type: none"> • Jarduera-sektoreen sexuaren araberako banaketa • Jarduera-sektorekako banaketa horizontala EAEko landunen sexuaren arabera • EAEko nekazaritza-sektorean enpresaburu edo kooperatibako 	<u>Biztanleria Aktiboaren Inkesta, 2021</u> EIN	Urtero

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKO TASUNA
kide gisa lan egiten duten emakumeen ehunekoa		
<ul style="list-style-type: none"> EAEn arrantza-sektorean lan egiten duten pertsonak sexuaren arabera 	<u>EAEn arrantza-sektorean lan egiten duten pertsonak, sexuaren eta arrantza motaren arabera</u> EUSTAT	Urtero
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendaritzako karguak betetzen dituzten emakumeen ehunekoa 	<u>2030 Agendako garapen jasangarriaren adierazleak. 2019</u> EUSTAT	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Ustiategi-titular diren emakumeen ehunekoa Ustiategi-buru diren emakumeen ehunekoa 	<u>Nekazaritzako ustiategien egiturari buruzko inkesta. 2016</u> EUSTAT	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Estatuan ustiategien titular eta buru diren emakumeen ehunekoa Ustiategi-titular diren emakumeen ehunekoa tamainaren arabera 	<u>Nekazaritzako ustiategien egiturari buruzko inkesta. 2016. urtea</u> EIN	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> EAEn titulartasun partekatua duten ustiategien kopurua 	<u>RETICOM. 2021</u> Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Estatuan nekazaritza lan egiten duten eta lan-arloko sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpena pairatu ondoren bazarik eskatu ez duten emakumeen ehunekoa 	<u>Lan-arloko sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpena pairatu Espainian. 2021</u> GIGO	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Garraio publikoan hobetu beharreko alderdiak landa-emakumeen arabera 	<u>Landa-emakumeak</u> EUSTAT	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Generoaren araberako soldata-arrakala nekazaritza-eremuan 	<u>Genero-arrakalak Euskadiko lan-merkatuan</u> ISEAK fundazioa	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza lan egiten duten emakumeen batez besteko errenta pertsonal erabilgarria 	<u>Biztanleria landunaren batez besteko errenta pertsonala, sexuaren, jarduera-eremuaren eta errenta motaren (eurotan).</u> EUSTAT	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen presentzia arlo instituzionalean 	<u>Egitura eta eginkizunak</u> Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	Maiztasunik gabea

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen presentzia foru-aldundietan 	<u>Zifrak:Emakumeak eta gizonak Euskadin. 2019</u> Emakunde	Urtero
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen ehunekoa nekazaritzako elkarte eta erakundeetako organo erabakitzaileetan 	<u>Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila</u>	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Kontsulta- eta aholku-organook 	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko berdintasun-unitatea	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen presentzia UAGAn 	<u>UAGA</u>	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen presentzia ENBAn 	<u>ENBA</u>	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen presentzia EHNEn 	<u>EHNE</u>	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Indarkeria matxistaren biktima izan diren eta tratu txarrak ikusarazi edo salatzen duten emakumeen ehunekoa, bizi diren udalerraren tamainaren arabera 	<u>Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko makroinkestak. 2019</u> Genero-indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udal Sarea osatzen duten udalerriak 	<u>Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL)</u>	Maiztasunik gabea

5. ERREFERENTZI-AGIRIAK

5.1 AZTERLANAK ETA TXOSTENAK

- Emakumeak eta osasuna EAEko landa-eremuetan. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, 2006
- Guardiako adierazpena. Landa Emakumeen Batzordea (LEB), 2010
- Diagnóstico de la Igualdad de Género en el Medio Rural. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa (MAPA), 2010.
- «La reproducción de la violencia de género: una lectura desde las áreas rurales». Martínez MA eta Camarero LA, 2015
- Emakumeak Euskal Landa Ingurunean. Landa Emakumeen Batzordea (LEB), 2016
- Soldata-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan. Emakunde, 2018.
- Genero-arrakalak Euskadiko lan-merkatuan. ISEAK Fundazioa, 2019.
- Zifrak 2019.Emakumeak eta gizonak Euskadin. Emakunde, 2019.
- Violencia de género en el medio rural. Una exploración cualitativa de los micromachismos en áreas rurales de Castilla y León. Gaztela eta Leongo Batzarra eta ISMUR, 2019
- Macroencuesta de violencia contra la mujer. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza (GIAGO), 2020
- El acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el ámbito laboral en España. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza (GIAGO), 2021

5.2 ESKULIBURUAK ETA GIDAK

- Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan integratzeko jarraibideak. Osalan, 2017

5.3 WEB-BALIABIDEAK

- Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta. Eustat, 2016
- Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta. EIN, 2016
- Landa-emakumeak. Eustat, 2017.
- EAEko landa-eremuak zehaztea 2015-2020. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (EGJIS), 2018.
- Unibertsitate-estatistika. Unibertsitate Ministerioa, 2019

-
- [Unibertsitatekan kanpoko irakaskuntzei buruzko estatistikak. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, 2019](#)
 - [Unibertsitatearen estatistika. Eustat, 2019a](#)
 - [Pertsonen eta familien errentaren estatistika. Eustat, 2019b](#)
 - [Arrantza-sektorearen inkesta ekonomikoa. Eustat, 2020](#)
 - [Biztanleria Aktiboaren Inkesta \(BAI\). EIN, 2021](#)
 - [RETICOM. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa \(MAPA\), 2021](#)
 - [Biztanleen udal-estatistika. Eustat, 2021a](#)
 - [Garapen jasangarriaren adierazleak. Eustat, 2021b](#)
 - [Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunea. Eusko Jaurlaritza, 2021](#)
 - [ENBAren webgunea, 2021](#)
 - [EHNeren webgunea, 2021](#)
 - [Euskadiko Udalen Elkartearen \(EUDEL\) webgunea, 2021](#)
 - [UAGaren webgunea, 2021](#)
 - [HAZI Fundazioa](#)